



Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea

GESTIO PLANA

2023

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA	4
2. ARDATZA: GEOTURISMOA	6
3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA	8
4. ARDATZA: GESTIO OROKORRA, komunikazioa eta marketina	10
5. ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA	13

SARRERA

Turismo Helmugen Jasangarritasunerako Planarekin (HTJP) eta plan horretan jasotako jardueren plangintzarekin lotura zuzena izango du 2023 urteak Euskal Kostaldeko Geoparkearentzat. Ekintza horiek, ez dute islarik urteko aurrekontuan, bai ordea lan-kargan.

Bestalde, komunikazio-arduradun bat plantillan sartzeak arlo hori indartzea ekarriko du, bai barne komunikazioan, bai herritar eta bisitariei egiten zaien komunikazioan ere. Horrez gain, Marketin Plana aurrera eramaten ere lagunduko du.

Marketin Plan berria mugarri garrantzitsua da. Geoparkea etengabeko bilakaeran dago eta, horren ondorioz, orain arte ondo joan diren baina eguneratu beharra duten zenbait gai birdefinitu behar dira.

Bestalde, Debako HAB proiektuak ibilbide garrantzitsua egin du dgoeneko baina gauzatzen jarraitu behar du. Geoparkeak udalarekin kolaboratzen du eta ikertzaile eta arkeologoek lana katalizatzen du turismo-produktuaren oinarri zientifikoa bermatzeko. Proiektu horretan lankidetzan aritzeak ere langileen dedikazio handia ekarriko du.

2023an amaitzen da bisita gidatuen programaren esleipena, eta aurten hausnarketa sakona egin behar da 2024tik aurrera izan nahi dugun kudeaketa-ereduaren inguruan. Aldi berean, gutxiago garatuta dauden zonalde eta turismo-produktuak hobetu behar dira, Geoparkearen posizionamendu berria merkaturatzeko.

Estatuan geoparkeak hartzen ari diren garrantziak elkarren artean egiten diren jarduerak indartzea eskatzen du. Horretarako, lankidetzan apustua egin eta erabaki estrategikoak hartu beharko dira, hala nola, geoparkeen foroak nortasun juridikoa izatea.

2023 urte garrantzitsua izango da Geoparkearen hazkundearen oinarriak ezartzeko.

1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honek Lurraren Zientzien eta natura- eta kultura-ondarearen ikerketarekin eta gizartearatzeari lotutako helburuei erantzun nahi die.

Zehazki, ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoan, itsas ondarean eta ondare ukiezinean jartzen du arreta. Ardatz honen helburua da, halaber, ingurumen-hezkuntza koordinatuaren eskaintza garatzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat bisitari motarentzako gune interesgarri bihurtzeko, eskola-eremuan bereziki.

Normaltasuna berreskuratuta, Geoparkeako teknikariek oso garrantzitsua dute ikastaroetan eta hitzaldietan parte hartzea, bai online, bai aurrez aurre. Ikusgarritasun handiko lekuak dira, oso publiko zehatzari zuzenduak, eta horien artean Geoparkeak bere burua kokatu nahi du; ondare geologikoa ikertzeko, kudeatzeko eta zabaltzeko erreferente gisa.

1.1. Lurraren Zientzien (LZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- **GIGen inbentarioa eguneratzea.** Iaz eguneratzearen landa-lana egin zen eta aurten dokumentu berria egingo da. Interesgune berriak gehituko dira, batez ere Karstari lotutakoak, eta horietako batzuk Geoparketik hurbilen dagoen eragin-eremuan daude kokatuta (Mendaro, Azkoitia, Zestoa eta Getaria). Honen ondoren, GIG bakoitzaren potentziala zehaztuko da, udalerrri bakoitzarekin batera; ikerketa, kontserbazio edo balioztatze arloan GIGa lantzeko aukera baloratuko da.
- 2021ean, Eusko Jaurlaritzaren natura-ondarearen laguntzetara **Debako septariak kontserbatzeko eta balioztatzeko** proiektu bat aurkeztu zen eta laguntza jaso zen. Proiektu hau 2023an amaituko da, udalaren eskuetara pasako den septarien bilduma pribatua erosita eta Deban erakusteko beste septaria batzuekin trukatzeko proiektuarekin.
- UPV/EHUK **Flysch Beltzeko noduluei** buruzko ikerketa bat egitea proposatu du, geologikoki nola sortu diren eta zer ezaugarri dituzten jakiteko. Ikerketa 2022an hasi zen eta 2023an amaituko da.
- **“Diversidad faunística en los ríos del Geoparque: efecto del aislamiento fluvial”** ikerketak Geoparkeko ibai isolatuen fauna-aniztasuna du aztergai, 2022an hasi zen eta 2023an amaituko da.
- 2023aren amaieran, gai desberdinetako ikerketa-proiektu txikiei laguntza emateko beste deialdi bat argitaratuko da Geoparkean.

- Espainiako Geologia elkarteko gazteen atalak, urtero Geoquedada egonaldi bat antolatzen du. 2023an Geoparkean antolatuko da (maiatzak 19-21), eta bertan, sare sozialen bidezko zientziaren hedapenaz hitz egingo dute.

1.2 - Ondare arkeologikoa eta historiaurrearen ikerketa eta dibulgazioa

- **Ikerketaren sustapena**

Ermittia kobazuloan indusketa kanpaina arkeologiko bat egingo da HAB (Historia Aurreko Bailara) proiektuaren barruan.

- **Karsta eta prehistoriari buruzko ekitaldia**

Deba eta Geoparkea historiaurrean erreferente izateko eta sortzen ari den turismo-produktua kokatzeko, ekitaldi publiko bat antolatuko da bertako biztanleentzat, hitzaldi edo tailer formatuan.

- **HAB proiektuaren** hurrengo faseetan aurrera egiteko, udalarekin elkarlanean jarraituko dugu. 2023an, HAB geoibilbidearen lehen fasea amaituko da eta bigarren fasea hasiko da. Bigarren fase horretan Ermittia kobazuloaren eta Praileaitz inguruaren Plan Zuzentzailearekin batera ibilbidea osatuko da.

1.3 - Ingurumen hezkuntza. Geoeskolak

Azken urteotan garatu diren hiru unitate didaktikoetan Geoeskolen parte hartzea sustatzen jarraitzen dugu. Material berria sortu aurretik, dagoenari erabilera eman eta optimizatzen dugula ziurtatuko dugu.

- Geoparkeko Flyscha DBH4rako
- Amonite fosilak LH1erako
- Lasturko Karsta LH6rako

Geoparkeak, lurraldean kokatutako 9 zentzoei material hori doan eskainiko die eta beste ikastetxe batzuek ere egin ahal izateko aukera eskainiko du.

Eusko Jaurlaritzak eta EHUrekin lankidetzak fruituak eman ditu eta jarraibideak ezarri ditugu Ingurugelak unitate didaktiko hauek bere katalogoan eskaini ditza. Aldi berean, UPV/EHUko CAP-eko ikasle batek bere Master Amaierako Lanerako DBH4 unitate didaktikoa aztertuko du, hezkuntza dekretu berrira eta Agenda 2030era egokituz.

2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Urtean zehar, geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatuko dira, betiere turismo iraunkorraren edo ekoturismoaren ildotik.

2022an, Geoparkeak, Turismo Helmugen Jasangarritasunerako Plan bat garatzeko finantzaketa lortu du, NEXT funtsen kargura. 5.200.000 euroko zenbatekoa egokitu zaio eta hiru urtean gauzatu beharreko plana da. Horrek datozen urteetarako turismo jardueraren lehentasunak ezartzen dizkigu.

2.1 - Produktu eta baliabideak

- **Ekoturismoa**

Ekoturismoa da Geoparkeako turismo alorraren lan-esparru orokorra da. Ekoturismo Klubarekin eta 22 entitate laguntzailerekin batera, merkaturatze- eta sustapen-ekintzak egingo dira. Nazioarteko kazetariarekin press trip bat egitea ere aurreikusten da, Urdaibairekin batera.

- **Zientzia turismoa**

Geoparkean turismo zientifikoaren merkaturatze- eta komunikazio saiakerak areagotuko dira.

- **Kirol-ekitaldiak**

Honako kirol-ekitaldi hauek lagunduko ditugu, ohiko terminoetan:

- Zumaia Flysch Trail
- Lasturko mendi martxa: Geoparkeko Karstari bira
- Flysch Beltza, Saturraran-Deba igeri zeharkaldia

- Familientzako **promozio bereziak** egingo dira: deskontuak eta opari-bonoak, hainbat kolektiboren arteko bisita gidatuak sustatzeko eta ekitaldi zehatzetan promozioa egiteko.

- **Gaur egungo produktuen hobekuntza:** Turismo-produktu batzuen egoeraren diagnostikoa egingo da, eta produktua hobetzeko eta merkaturatzeko plan bat egingo da. Gainera, Nautilus familientzako produktu gisa sustatuko da, udaberrian zein udazkenean fosil tailerrak antolatuz.

2.2 - Bisita gidatuak

2023a da bisita gidatuak esleitzeko kontratuaren indarraldian egongo den azken denboraldia. Urte hau, kudeaketa- eta trantsizio-ereduari buruzko hausnarketa-urtea izango da. Oraingoz, bisiten plangintza eta egutegiarekin jarraituko da: 16 bisita motarekin eta urtean 1.000 bisita programatu baino gehiagorekin.

Programa merkaturatzeko bideak:

- www.geoparkea.eus eta erreserben online sistema.
- Deba, Mutriku eta Zumaiako hiru turismo bulegoak.
- Bidai-agentziak eta bidai agentzia hartzaileak, negozio kopuruan eta bolumenean gora egiten ari direnak.
- Online merkaturatzeko plataformak: Civitatis, turismo vasco, etc.

Taldeen bisitak Geoparkeak kudeatzen ditu zuzenean eta webguneko taldeen formulariora bideratzen dira, bertatik eskaera egin dezaten. Helburua egonaldia luzatzea da eta hain ezagunak ez diren eremuak erakustea, taldeari zerbitzu pertsonalizatua eskainiz. Eskola-taldeak zuzenean Algorri zentrora bideratzen dira, eta aisialdiko talde arruntak, haiengan eragiteko margen txikia dutenak, helmugan lan egiten duten enpresetara bidaltzen dira.

2.3 - Promozioa eta merkaturatzea

Erabiliko diren sustapen-tresnak iazko berberak dira:

- **Turismoa sustatzeko azokak.** Basquetourrek edo Gipuzkoa Turismoak ordezkatzeko gaituzten azoketara joango gara. Ekoturismo kluba nazioarteko azoketara ere joaten da Geoparkea sustatuz. Gainera, Aste Santuan, Basque Festen izango gara Bilbon, stand propioarekin. Aurten ere ez dugu geoparkeen stand propioarik izan Fiturren, baina ordezkaritza garrantzitsua izan dugu alkate eta teknikariekin.
- **Kanpainako bereziak** bisita gidatu batzuetarako unean uneko sustapena egiteko.
- **Merchandising elementu berria** turismo-bulegoetan saltzeko eta enpresa-oparigisa.

3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1 - Ibilbideak eta bidezidorrak diseinatzea

- Helmugen Jasangarritasunerako Planean Itziarren **hiru geoibilbide** martxan jartzea proposatu zen. Aurten, hiruak egingo dira, beharrezko egokitzapenak eginez tokian bertan, seinaleak jarriz eta ibilbideak interpretatuz.
- **Geoparkeko bira** produktu turistiko gisa. Ibilbidea diseinatuko da eta produktu turistiko bihurtzeko aukerak baloratuko dira.

3.2 - Interpretaziorako azpiegiturak

- Helmugen Jasangarritasunerako Planak interpretazio-azpiegituretako hainbat jarduketa jasotzen ditu. **Santa Katalina komentuaren berriztapena eta bertan Nautilus museoa eta turismo bulegoa kokatzea, Flyscharen interpretazio zentroa eta Zumaiako Moilaberri eraikina**, batik bat. 2023an esleituko dira edukietarako eta museografiarako gure laguntza beharko duten gauzatze-proiektuak.
- **Olatzen Geoibilbidearen** interpretazioa eguneratu eta mantenduko da.
- **Begiratokien ibilbidea** eguneratu eta mantenduko da.
- **Geoparkearen seinaleztapen bertikala** hobetzen jarraituko dugu, eta interesgune gehiagotara iritsiko gara.

3.3 - Natura-ingurunea babestea eta kontserbatzea

- Herritarren zientzia-sareari lotutako BIOTOP topaketak.
- Nazioarteko egunak ospatzea. GGNk geoparkeen jarduerekin lotutako **nazioarteko egun** batzuk ospatzera animatzen du, hala nola hezeguneena, Ama Lurrarena, mendiena, etab.
- Otsaila eta martxoa bitartean, **Zuhaitz Eguna** ospatuko dugu iaz hasitako zuhaitz landaketarekin, GFAREN laguntzarekin.
- Naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko beste ekimen batzuk ere egingo dira: Naturaldia, argazki-erakusketa, sorbeltzen habia-kutxak jartzea eta sentsibilizazio-eta dibulgazio-jarduerak.

- Kutxa Ekoguneko Bihotz berdearekin lankidetzeta.
- 2022an San Telmo-Algorri ibilbidearen **karga-ahalmenaren azterketa** egin da Zumaiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Azterketa horretatik hainbat mailatan abian jarri beharko ditugun ekintzak eratorriko dira.
- Itziarko Auzo Udala proiektu bat egiten ari da **Aixako haitzuloa** kontserbatu eta balioztatzeko. Gure zeregina zehaztu gabe badago ere, proiektuak bere helburuak bete ditzan lagunduko du.
- **Euskal Kostaldeko Geoparkearen biodibertsitatearen katalogoa/gida** egitea. Une honetan, katalogoaren metodologia eta irismena definitzen ari gara, GFArekin batera.

4. ARDATZA: GESTIO OROKORRA, komunikazioa eta marketina

Geoparkearen helburua komunikazio-saila indartzea da, plantillan pertsona bat kontratatuta, eta gainerako staff eta lankidetzak mantentzea.

Geogarapeneko lantaldea: bertako langileak

- **Gerentziak** geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sareko (EGN/GGN) eta Geoparkeen Espainiako Batzordeko (CNEG) ordezkarietako funtzioak hartzen jarraitzen du. Gainera, aurten Ekoturismo Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kidea eta Espainiako Geoparkeen Foroaren koordinazio-taldeko idazkaria izango da.
- **Bisita gidatuen dinamizatzailerak**, 2023rako, zeregin hauekin jarraituko du:
 - Erreserben online sistemaren kudeaketa
 - Turismo-arloaren kudeaketa orokorra
- **Komunikazio- eta marketin-arduradun berria**, lanpostu berri bat sortzea aurreikusten da, komunikazioaren, prentsa-oharren sorkuntzaren, webgunearen eguneratzearen, blogaren, newsletter-en eta abarren arloko zereginak bere gain hartuko dituena. 2022an egindako Marketin Plan berrian oinarritutako marketin-ekintzak martxan jartzeaz ere arduratuko da.

Kanpo laguntzak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitzen du, EGNko eta GGNko ordezkagarritasunarekin eta IUGSko (International Union of Geological Sciences) Ondare Geologikoaren Batzordearen koordinazioarekin batera.
- **Community manager** (RRSSen kudeatzailea) @Geoparkearen estrategiarako Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren koordinazioa**, Naturagune Babestuetako (NB) jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko.
- **Kontabilitate-aholkularitza**, aholkularitza juridikoa eta urteko kontuen auditoretza, erakundearen eguroko kudeaketarako.
- Bisita gidatu geoturistikoen kudeaketa-ereduari buruzko **hausnarketa-taldeko saioak dinamizatzeko** laguntza.

4.1 - EGN, GGN eta UNESCO Geoparkeen Europako Sarearekiko harremanak

Estrategikoa da Geoparkeak nazioartean duen presentzia eta eragina handitzea. Horretarako, jarrera aktiboa izaten jarraituko da bai urteko topaketetan, bai beste foro batzuetan.

- EGN eta GGN topaketak 2023an
 - Udaberriko hitzordua Hateg-eko Geoparkean izango da, Errumanian (martxoak 28-31)
 - Munduko Konferentzia, M'Goun UGGn izango da irailean, Marokon.
- Urteko ekarpenak Europako Sareari eta GGNri, sustapen-tasa gisa, lehenengo kasuan, eta UNESCO Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa, bigarren kasuan.
- EGNko lantaldeak
 - GJHen lantaldea
 - Hezkuntzako lantaldea
 - Fosilen lantaldea
 - Geoturismoko lantaldea
- Bi sareetarako komunikazio-euskarrietarako ekarpenak
 - EGN newsletter, sei hilean behin
 - GGN Newsletter
 - EGN magazina

Txostenak EGNra eta GGNra bidaltzen jarraituko dugu: urteko txostena eta Europako Geoparkeen Asteari buruzko programa eta azken txostena.

UNESCoko ebaluatzaileen panela. Geoparkeak EGNn dituen bi ordezkariak ebaluatzaileen panelekoak dira, eta hauek urtero ebaluazio- eta berbalidazio-misioak egiten dizkiete beste geoparke batzuei.

GEOPARKEEN ESPAINIAKO FOROA

- **Geoparkeen jardunaldi irekiak** Foro honen urteroko ekimena dira. Urtero leku eta gai desberdin batean ospatzen dira eta 2023an Montañas de Courel UGGn ospatuko dira, Galizian.
- Espainiako esperientzien deialdira aurkezteko proiektu bat egin da, eta argitaratzeko zain gaude.

CNEG (Geoparkeen Espainiako Batzorde Nazionala)

- Batzorde honetan Geoparkearen arduradunari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen zuzendariari dagokie ordezkaritza. Batzordeari txostenak bidaltzen dizkieten hautagai-zerrenda berriei aholkua eman zaie, UNESCOri bidaltzeko, forma-akatsik gabe behintzat.
- CNEG ofizialki sortzeko errege-dekretu bat idazten ari gara, gaur egun ez baitauka izaera formalik.

4.2. Komunikazio estrategikoa

ON-LINE

- Webgunearen kudeaketa eta **erreserben zentralaren** hobekuntzak.
- **Berrien atala** eguneratuta egongo da. 2023an hogeita hamar bat berri argitaratuko dira webgunean.
- **Newslettterra** bi hilean behin bidaliko da, gutxi gorabehera. 6 ale inguru urte osoan.
- 2022an alta eman genuen **merkataritza elektronikoan**, datuak hobeto kudeatzeko. Urte honetatik aurrera, datu fidagarriak izan ditzakegu, gure bezeroa hobeto ezagutzeko eta ekintza pertsonalizatuak zuzentzeko.
- **Blog** bat sortu dugu, eta bertan aldizka postak argitaratuko ditugu zientziari, ingurumenari, turismoari, plan eta esperientziei buruz.
- **Marketin digitaleko** ekintzak egingo dira, egin berri den planean oinarrituta.

OFF-LINE

- **Prentsa-oharrak eta/edo prentsaurrekoak** egingo dira, eta harreman estua izango da inguruko komunikabideekin.
- **Publizitatea kontratatuko da** komunikabideetan, irratian, prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetakako komunikabideetan eta turismo-jarduera txikiagoa den hilabeteetan.
- Baleike eta Debaberri aldizkarietan lankidetzak mantentzen da, Geoparkea eta zientziari buruzko artikuluak proposatuz.
- Geobilbideek eta beste baliabide batzuen bideo laburrak egingo dira, sareetan sustatzeko.

4.3 - Marketina

- Geoparkearen logo berria eta markaren eskuliburua, marketin-plan berrian oinarrituta.

5. ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

5.1 - Lehen sektorea bultzatzea

- **Geogourmet saskiak** saltzen jarraituko dugu, lurraldean sortutako tokiko produktuen balioa nabarmentzeko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile berberekin jarraitzen da, eta hiru turismo-bulegoetan prezio berean saltzen da.
 - Txakolina: Sagarmiña eta Flysch
 - Gazta: Goienetxe
 - Atuna kontserban: Zizzo eta Nardin

5.2 - Geoparkezaleak

- Geoparkezaleen Ekintza Planean jasotako jarduerak garatuko dira.
- **Prospekzio-bisita egingo da Villuercaseko Geoparkera**, Las Loraseko Geoparkeko ordezkariekin batera. Bisita udal ordezkarietara eta entitate laguntzaileetara zuzenduta egongo da.
- **Entitate laguntzaileen figura tokiko ekoizleei eta jatetxeei zabaltzea**, Unescoko ebaluatzaileen 2022ko txosteneko gomendioei jarraituz.
- Barneko **fam trip**-ak antolatuko dira entitate laguntzaileentzat, Geoparkeko beste enpresa laguntzaile batzuk eta beraien eskaintza ezagutzeko.

5.3 - Geoparkeen Europako Astea

2023ko maiatzaren 19tik ekainaren 4ra bitartean egingo da. Oraindik zehaztu gabe badago ere, honako hauek osatuko dute programa:

- Hitzaldiak
- Tailerrak, erakusketak
- Doako bisita gidatuak
- Marrazki lehiaketa
- Geoparkeko itzulia etapaka
- Geotalks